

Shanti Torneo jendetsua

Tigre Txikiak, Perus, Deabruak eta Tigre Txikiak taldeek irabazi dute XXIV. edizioa ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-01-11 ▶ IV. urtea ▶ 784. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Espaloiaren lanak direla-eta autobus zerbitzu berezia dute Arratzaingoeak

VILLABONA ▶ Fleming eta Erniohea ikastetxeetako denentzat da; trafiko neurri berriak hartu dituzte ▶ 6



Arratzaingo hainbat ikasle, atzo, eskolatik irteteen, autobusak zain zituztela. I. GARCIA

TOLOSA ▶

Etxebizitza bat miatu dute indarkeria islamistaren aurkako operazioaren harira

Espainiako Segurtasun Indarrek Lasarten atxilotu zuten pertsona bat, eta ez Tolosan, zabaldu zen bezala ▶ 2

TOLOSA ▶

Marrazkiak bidali dituzten umeak saritzeko

Alde Zaharreko Merkatariek eta HITZAK antolatuta, jaialdi-merienda ▶ 2

ASTEASU ▶

Sarekide erakusketa ibiltaria zabaldu dute

Teknologia berriak nekazaritzan murgildu nahi dituztenek ekimen honek ▶ 5

TOLOSA ▶

Zine-klub taldearen eskaintza berria urte hasierarako ▶ 3

▶ HITZAKo harpidedunen artean

UDABERRI DANTZA TALDEAREN KAMIXETAK zozketatuko ditugu.

Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefonora (11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara).

Lortu zurea!





MIAKETA ▶

Etxebizitza bat miatu dute, indarkeria islamistaren aurkako operazioaren baitan

Espainiako Segurtasun Indarrek Lasarten atxilotu zuten pertsona bat eta ez Tolosan, hasieran zabaldu zen bezala

N. LATABURU

Espainiako Segurtasun Indarrek pertsona bat atxilotu zuten herenegun goizaldean Lasarte-Orian (Gipuzkoa), indarkeria islamistarekin zerikusia izatea leporatuta. Ondoren, atxilotua Tolosara ekarri zuten eta etxebizitza bat miatu zuten bertan, operazioaren baitan.

Hasiera batean, Gipuzkoako atxiloteta Lasarten barik Tolosan egin zutela zabaldu zuten Espainiako albiste agentziek, baina ordu batzuk beranduago informazio hori zuzendu zuten. Sarekada berean, beste hainbat lagun atxilotu zituzten Espainiako Poliziak eta Guardia Zibila, Espainian eta Katalunian; «Irakera bidaltzeko

muhaidinak bilatu eta horiek trebatzeko lanak egin izana eta ekinga terroristak finantzatzea» leporatzen diete guztiei ere. Ikerketako iturriek jakinarazi dutenez, bada, Lasarteko atxilotetarekin batera, Madriren (Espainia), Saint Boix de Llobregaten eta Vilanova I La Geltru Bartzelonako hirietan (Katalunia) ere beste hainbat

jazo dira. Azken bi herri horietan 16 lagun atxilotu dituztela agertu zuten polizia iturriek. Operazioa Fernando Andreu Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 4. zenbakiko Epaitegi Zentraleko epaileak zuzendu du eta Espainiako Inteligentzia Zentroak egindako ikerketa omen du oinarri. Espainiako Barne Ministerioaren arabera, «terrorismo islamistarekin» harremana dute guztiek, baina bi taldetan zeuden antolatuta.

Bartzelonako bi hirietan Guardia Zibila desegin duen taldea, gainera, 2003. urteko azaroaren 12an Naisiriya hirian (Irakeko hegoaldean kokatua) Italiako base baten aurka eginiko eraso suizidaren arduraduna omen da. Eraso horretan 20 soldadu italiar hil ziren. Uneotan, kamikazea Espainiatik abiatu ote zen aztertzen ari dira.

MUSIKA ▶

Kontzertu gehiago Bonberenean astebururako

Etzi, Obligaciones eta Nuevo Catecismo Catolico ariko dira; larunbatean, Asgarth

N. LATABURU

Bonbereneak bere ohiko agendari ekingo dio, 6. urterrenaren ospakizunekin amaitu eta gero. Horrela, bere eszenatokiak hiru kontzertu berri hartuko ditu asteburu honetan. Etzi, ostirala, 22:30ean hasiko da ikuskizuna. Lehenik eta behin, Nuevo Catecismo Catolico taldea ariko da; ondoren, Obligaciones taldeak eskainiko du emanaldia. Larunbatean, berriz, Asgarth taldearen kontzertua izango da entzungai Bonberenean, 22:30etik aurrera.

Nuevo Catecismo Catolico taldea 1992. urtean osatu zen, La Perrera taldea desegin zenean. Bere musikak punk klasikoa eta hard rocka uztartzen ditu hasiera batean. Urteetan zehar taldekide ezberdinak ezagutu ditu taldeak. Zazpi diska dituzte bizkar gainean; azkena 2003an argitaratutakoa, *100% Punk Rock Superfight*. Bereaien esanetan, «gure berezitasuna zuzenekoa da; gure sekretua, berriz, egiten dugunaren gozatu eta beragan sinetsi». Obligaciones taldeari dagokionez, haien laugarren diska, *El lado peligrosamente sexual del rock*, aurkeztuko dute Gasteiztik datozen musikariek.

Asgarth talde donostiarrak (Añorga auzoa) 1997. urtean sortu zuten bost gazte hauek: Ander Cañas (gitarra), Unai Zabala (gitarra), Joxi Perurena (baxua), Iban Fernandez (bateria) eta Asier Enbil (ahotsa). Hasiera haietan batez beste 20 urte zituzten eta «musika egiteko izugarritzko gogoia». Euskadi Gazteak antolatutako maketa lehiaketa irabazteak musika munduko atek ireki zizkien. Hamaika kontzertu eskaini dute ordutik hona, eta lau diska ere plazaratu dituzte: *Jainkoen egoitza* (1999); *Etorkizunaren sustraia* (2000); *III* (2002); eta *Garraia* (2005). Azken honen abestiak izango dira entzungai, besteak beste, larunbat honetan, 22:30ean.

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶

Lehiaketaren ostean, jaialdia

Larunbatean sarien zozketa izango da, 17:00etan, Berdura plazan

NOELIA LATABURU

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ekimen berria jarri zuen martxan Eguberrietarako, Tolosako Alde Zaharreko merkatarien laguntzaz, haurtxoei zuzenduriko I. Marrazki Lehiaketa, hain zuzen ere. Ekimenarekin lotuta, larunbat honetan Alde Zaharra-Dendak elkarteak eta HITZAK jaialdi berezia antolatuta dute Berdura plazan, 17:00etatik aurrera. Bertan eskualdeko euskarazko egunka-

ria bere marrazkia ekarri edo bidali duten ume guztien artean era guztietako opari asko eta asko banatuko dituzte, eta merienda ere eskainiko diete merkatariek bertaratuei. Parte-hartzaileekin batera, joan nahi duten ume guztiak har dezakete parte jaialdian, bai eta haien gurasoak ere.

Marrazkiak bidaltzeko epea amaitu bada ere, HITZAK oraindik ere jasotako guztiak argitaratzen ditu egunero; izan ere, arrakasta handia izan du eki-

menak eta adin guztietako umeek bidalitako ehunka marrazki jaso ditugu egoitzan. *Nola ikusten duzu zure herria?* izan zen proposatutako gaia. 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gazteek euren irudimena martxan jarri eta marrazki berezi eta xarmentak jaso ditugu egunotan. Behin guztiak egunkarian argitaratu ostean, Alde Zaharra-Dendak elkarteak merkatariek euren dendetan jarriko dituzte marrazki hauek ikusgai.



Jasotako marrazki bat. HITZA

iragarki laburrak ▶



Albiztur. Berrikuntza behar duen baseria salgai. 200 m²-ko solairu bakoitzean. Hiru solairu. 35.000 m²-ko lur sailarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familientzako baseria salgai. Berrikuntza behar du. Informazio pertsonala.

Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. 80 m²-ko etxebizitza salgai, erabat berritua. Kanpoaldera, igogailuarekin, ikuspegi ederrekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko dagoen duplex etxebizitza salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta terraza. Garajea aukeran. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m² dituen apartamentua salgai, berritua. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Donostia. Rodil trabesia. Berritua dagoen apartamentu polita,

eguzkitsua, ikuspegi politekin. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Elosua. Berrikuntza behar duen baseria salgai. 35.000 m²-ko lur sailarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Irura. Laskibar zonaldean, eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Erdiberrituko etxebizitza salgai. Trastelekuarekin eta bodegarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Geltokialdean, 102 m²-ko etxebizitza salgai. Lorategiarekin, trastelekuarekin, eraikuntza berrikoa. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m²-ko etxebizitza salgai. Egoera

paregabean, trastelekua aukeran. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, eraberritzen ari diren etxebizitza salgai. Informazio pertsonala.

Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, azken etxebizitza salgai, eraikuntza berrikoa, 65 m² erabilgarri. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean 90 m² dituen etxebizitza salgai. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Etxebizitza alokairuan. Lan kontratua eta bermeak eskatzen dira. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Eraikuntza. Erabilgarriak diren 65 m²-ko lur saila.

ZINEMA ▶

Urte berriarekin iritsi da zinema eskaintza berria Kultur Etxera

Robert Greenwald zuzendariaren 'Agerian: Irakeko gerra' filma izango da ikusgai biharkoan, 21:30ean, Kultur Etxean

IRATXE ETXEBESTE

Urte berriarekin batera, zinema eskaintza berria egin dute herriko zinemasaleek Kultur Etxerako. Bihar izango da urteko lehen saioa, 21:30ean, eta Robert Greenwald zuzendariaren *Uncovered: The war on Iraq* (Agerian: Irakeko gerra) filma izango da ikusgai.

«Bushen administrazioak Irakeko inbasioa justifikatzeko erabili zituen arrazoiak gogora ekartzen ditu film horrek, eta muinetik egiten du, gainera: izan ere, Ipar Amerikako inteligentzia eta defentsa funtzionarioek, atzerri arazoetako adituek, NBEko arma ikuskariek, Gobernuko kontseilari ohiek eta gerra deklarazioan bertan izandakoek hitz egingo dute, eta artxiboko irudi salatariak erabiliko dituzte. Greenwaldek erabilitako estiloa Michel Moorek, esaterako, erabilitako efektismoaren eta garraztasunaren kontrakoa da, ez baitu emozioa probokatu nahi —muntaia erabiliz—, frogan analisiaren eta testigantzen bitartez bidegabeko gerra baten arrazoiak erraizetatik atera, baiuzik.

Filmaren zatirik handienean gerra justifikatzeko irizki publikoari eman zitzaion arrazoi faltua azaldu nahi da: Sadam Husseinen ejerzitoak suntsipen handiko armak zituela, alegia. Erabilitako beste argumentuetako bat Irakeko erregimenaren eta Al Qaedaen arteko harremana izan zen, eta gai horri elkarrizketatu guztiek uko egin zioten. Horrez gain, Ameriketako komunikabide gehien jarraera lotsagarria ere aztertzen da; komunikabideek gobernariaren gezurrak babestu zituzten. Alde batera utzita dagoen NBEak, berriz, Greenwalden dokumentalaren babesa jaso du; haren ikuskarrien lana eraginkorra dela bermatzen du, herrialdeko armategiaren %98 baino gehiago deuseztatu baitzuen». Robert Greenwald zuzendariak egindako filmaren sinopsia egin dute zine-klubeko arduradunek era horretara.

Xu Jingleiren *Letter from an unknown woman* (Emakume



Agerian: Irakeko gerra filma eskainiko dute biharkoan. HITZA

ezezagun baten gutuna) izeneko da, bestalde, datorren asteko saioan ikusi ahal izango dena; hilaren 19an, ordu eta leku berean.

Eta film horri buruz ondorengo esan dute zine-klubeko arduradunek: «Ekialdeko sentikortasunarekin eta hango ikuspuntutik egindako bertsoia ikusi aurretik, 1948an Max Opphülsek Stefan Zweig austriarraren eleberriari buruz egindako *Letter from an unknown woman* film klasikoa alde batera utzi behar da». Pe-kin, 1948an, gudu oatea. Idazle txinatar bat etxera doa, gutunak itxaroten ditu. Horien artean sekretuan bizitako maitasuna jakinarazten dion emakume batena dago. Nerabezaroan isiltasunean jaiotako semearekin bizi da, baina, berekoieria-gatik, gizonak ez du gehiago gogoan izan.

Argumentu esentzialista, aktore gutxi eta istorio simplea duena. Hala ere, bakartasunean bizi den maitemindutako emakume baten barneko munduan sartzen gaitu. Film honen eraginkortasuna xehetasun txikietan dago: arrosa batean, musu iheskor batean, ezustean topo egitean. Batez ere, kontenplaziozko isiltasunez betetako Jinglei beraren presentzian, izugarri ongi interpretatua.

Helbururik gabeko filma da, eta atmosferen sentikortasunagatik eta arretagatik ekialdeko bitxia da. «Bizi garen ondasunen munduan, korrontez kontrako istorio hau emakumeari omenaldia da». Donostiako 2004ko Zinemaldian Zuzendari Onenari Zilarrezko Maskorra saria jaso zuen.

Bilera, gaur, Kultur Etxean

Tolosako zine-klubeko arduradunek bilerarako deialdia egin dute gaurko, 20:15ean dira biltzekoak Kultur Etxeko bigarren pisuan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara agertzera. Leidor zinema aretoa berritzen dutenerako zinemaren kudeaketari buruz osatua duten proposamenaren inguruan mintzatuko dira batzar horretan.

GUTUN@K ▶

Zumardi Handia dela-eta

Azken egun hauetan Zumardi Handian Tolosako Udalak egin nahi dituen obrak direla-eta zenbait komunikabidetan irakurri ditudan albisteen aurrean nire iritzia eman nahi nuke. Azken urteotan joan diren uda bero handi haietan, arbola azpi fresko horietara ezin izan dugu joan, txakur kakaz estalita zegoelako, ez hori bakarrik, elurra egin duenean kaka mordoak belar une guztietan, gure umeak zaindu ezinik ibili gara kakazuta etxera bueltatu ez zitezen.

Oso ondo iruditzen zait egin behar duzuen guztia, baina hasi gaitzen lehenik eta behin garbitasunarekin, nire kexa hau, herritar guztion ongizatearen ardura duen Tolosako Udalari zuzentzen diot, txakurrak maitatzea eta etxean eduki eta zaintzeari oso ongi deritot, baina txakurrak ez dugunok ere eskubidea

dugu kalean lasai ibiltzeko haurren aulkien azpian kaka hartuta etxeko alfonbran garbitu gabe edo eta jan behar ditugun fruta kaxetan muturra sartuta usaian edo hanka altxatu eta pixa egiten ikusten ibili gabe.

Gaiaz aldatuz, badut esatekorik ere Haur Liburutegi inguruan apaingarri gisara jarri dituzuen harri txiki txuri horiei buruz. Nori bururatu zait? Laster batere gabe zarete, oso ondo daude apainketarako baina ez hainbeste haur igarotzen diren leku baterako, haurrek harrika batailak egiteko?

Eta, azkenik, artxiboko erakinean egiten ari zareten ranpa zatar horri buruz, lehen garai batean kontribuzioa ordaintzera joaten ginen aldian-aldian, orain ez dut inor ikusten handik sartzen ez ateratzen, badaude leku ugarioraindik askoz erabiliagoak muga arkitektoniko ugari dituztenak.

LURDES JAUREGI ▶ TOLOSA

GIZARTEA ▶

Eguberrietako kanpaina «oso ona» izan omen da

«Zuek egindako lan txiki horrek asko balio du», adierazi dute Hirukideko ordezkariak



Ikastetxeko haurrak, elikagai bilketan lortutako produktuekin. HITZA

I. ETXEBESTE

Hirukide ikastetxeko arduradunak gustura dira Eguberrietako kanpainak eman duenarekin. Izan ere, ikastetxe horren eta Abegi eta Caritas eraman duten elikagai bilketaren emaitza «oso ona» izan delakoan dira. «Hirukide eskolak, Abegi eta Caritasen izenean,

esker beroenak eman nahi dizkie Eguberri kanpainen parte hartu duten familia, ikasle, irakasle eta herritar guztiei. Zuek egindako lan txiki horrek asko balio du. Emaitza oso ona izan da, eta hori guztioi esker izan da», adierazi dute Hirukide ikastetxekoek. Hurrengo urteko kanpainari begira jarriko omen dira orain.



TOLOSA ▶ KIROLAK

Giro «ezin hobean» amaitu da aurtengo Shanti Torneoa

Tigre txikiak (neskak), Deabruak, Perus eta Tigre txikiak (mutilak) izan dira XXIV. Torneoko irabazleak

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den igandean jokatu zituzten Tolosako Usabal kirolgunean Gabonetako Shanti Torneoko finalak. Hain zuzen ere, lau partida ikusteko parada izan zen, lau multzotan banaturiko finalak izan baitziren. Hala, nesken A multzoan Tigre Txikiak eta Oyarzabalen arteko norgehiagoka izan zen ikusgai eta Tigre txikiak izan zen irabazlea 3-2ko emaitzarekin. Nesken B multzoan, Deabruak eta Zumadiren arteko finala izan zen eta Deabruak izan zen garailea 3-2koarekin. Mutilen A multzoan Perus taldea izan da aurtengo irabazlea, Shanti kirolak taldeari 3-2 irabazi ostean. Eta mutilen B multzoan Tigre Txikiak izan da onena, Lurrikarak taldeari finalean 4-3 irabazita.

24 urte bete ditu aurtengo Shanti Futbito Torneoak, eta antolatzaileak gustura azaldu dira izan dituzten emaitzak ikusita. Izan ere, Tolosako 67 taldek hartu dute parte, 600 lagun baino gehiagok. Halaber, parte-hartze kopuruarekin ezezik, finalean bizitakoarekin ere pozik azaldu dira. «giro ezin hobea» izan baitzen Usabal kirolgunean. Giro hori pizten lagundu zuten Poxpolo eta Mokolo pailazoan lana azpimarratu nahi izan dute torneoko antolatzaileek. Eta baita partidak idustera eta animatzera joan ziren herritarrena ere, eta



Igandean Usabalen jokaturiko finaleko irudi bat. ov



Nesken A multzoko finala penaltietan erabaki zen. ov

SHANTI TORNEOA ▶

Igandean jokatu zituzten Usabal kirolgunean Gabonetako Shanti Torneoko lau multzoetako finalak. Tolosaldeko 67 taldek hartu dute parte aurtengo 24 urte bete dituen txapelketan.

EMAITZAK

Neskek A

Tigre txikiak 3-2 Oyarzabal

Neskek B

Deabruak 3-2 Zumadi

Mutilak A

Perus 3-2 Shanti kirolak

Mutilak B

Tigre txikiak 4-3 Lurrikarak

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Garbigailua. Garbigailua salgai. Panelagarria. 130 euro. Interesatuak deitu 657 77 70 42 telefono zenbakira.

horien artean, Berastegiko zaileak aipatu dituzte, euren animoengatik, eta Berastegikoak diren bi talde —Tigre Txikiak, neskek eta mutilak— txapel-dun izan direlako.

Antolatzaileek elastikoak banatu zituzten finaleko egunean parte hartu duten guztien artean eta, azaldu dutenez, Tolosako Shanti kirolak dendan izango dira gehiago egun horretan hartu ez zituztenentzat. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiete aurtengo torneoa egingen lagundu duten guztiei, bai Usabal kiroldeguneako langileei, bai eta laguntzaileei ere: TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA; Tolosako *Diario Vasco*; Shanti Kirolak; La Caixa; Euskadiko Kutxa; Saizar; Opil; Eceiza; Gorrotxategi; Orioki; Beloki; Gozona; Erreberri; Elustondo; Villanueva; Urio Velazquez, Joxe, Enrike, Asier, Xabi, Miguel, Luismi eta Iñigo epaileak; Tolosako Udala; Kirol Batzordea; Kiroler eta Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Sahararrei laguntzeko karabana abian da

Udaletxean eta Kultur Etxean jasoko dituzte produktuak hilaren 20ra bitarte



Saharako kanpamenduetako ikuspegi bat. I. TERRADILLOS

I. TERRADILLOS

Euskal karabana Sahararekin, piztu itxaropena lelopean, aurtengo abian da Saharako herritarrei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutako janari bilketa.

Hala, Ibarra Udaleko Gizarte Zerbitzuak berriro ere herritarren parte hartzea es-

katu nahi du ahal den elikagai gehien bildu ahal izateko. Aurtengo kanpainen bildu beharrekoak hegaltzea, azukrea eta konpresak izango dira, eta aurreko urteetan bezala, produktuak udaletxean eta Kultur Etxean jasoko dituzte. Halaber, horiek uzteko azken eguna datorren ostirala, hilaren 20a izango da.

TOLOSA ▶

Alkoholismoari buruz mahai-ingurua

Alkoholiko Anonimoen Elkarteko Uzturre Taldeak 13 urte bete ditu eta, hori dela eta, Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuarekin batera, mahai-ingurua antolatu du gaur, 19:30ean, Kultur Etxean, alkoholismoari eta haren ondorioei buruz aritzeko. Helburua gaixotasun horren eta familian, gizartearen eta lan munduan dituen ondorioen berri ematea eta, aldi berean, gaixotasun hau dutenei itxaropen mezua helaraztea izango da. Antolatzaileek mahai-inguruan parte hartzeko gonbita egin diete osasun arloko profesionaleri, gizarte laguntzaileei, kaltetuei eta herritar guztiei.

TOLOSA ▶

Federatu txartelaren tramitazioak

Tolosako Oargi mendi elkar-teak jakinarazi duenez, 2006. urterako mendiko federatu txartelak ari dira tramitatzeko. Asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan egin ahal izango dira federatu txartela lortzeko tramitazioak, eta Santa Maria kalean kokaturiko Oargi elkartearen egoitzara jo beharko da horretarako. Tramitazioak egiteko gauez joan beharko da, 20:00etatik 21:00etara.

TOLOSA ▶

KZguneko ikastaroetan izen-ematea

KZgunean zabalik dago urtarriko bigarren hamabostaldiko ikastaroetan izena emateko epea. Ikastaroak hilaren 23tik otsailaren 3ra bitarte izango dira, 09:00etatik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Halaber, otsailko ikastaroetarako izena emateko epea ere zabalik dagoela azaldu dute. Horretarako KZgunearen egoitzara joan beharko da, edo 943 65 37 20ra deitu.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Hau da gure webgunean proposatzen dugun gaia: «Indarrean dagoen lege berriaren arabera, lantegietan ezin da erre. Halaber, zenbait tabernetan erretzaileentzat egokituriko guneak jarri beharko dituzte. Zer iruditzen zaizue? Gogorregia al da legea? Edota are gogorragoa izan beharko luke? Zergatik?». Sartu eta eman zure iritzia gaiaren inguruan!

ASTEASU ▶ ERAKUSKETA

NEREA URBIZU

Asteasura iritsi da Sarekide ekimen berezia, Mendinet Toki Ekintzako Taldearen Leader+ Europako diru laguntza programak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailak finantzatu eta babesturiko ekimena, hain zuzen. Atzo bertan inauguratu zuten herri-iritsitako erakusketa mugikorra.

Osozara nekazal gune eta eremu izan direnetan Aro digital eta teknologiko berriari buruzko informazioa eman nahi du proiektu honek; eta, aldi berean, harekin loturiko praktikak landu. Hain zuzen ere, Euskal Autonomi Erkidegoko landa guneetan izango da bi urtez erakusketa hau.

«Teknologia berriei buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta informazioa» eman nahian, hainbat tresnaz baliatzen da Sarekide. Era berean, zenbait irizpide ditu ardatz: «Teknologia berrien arloan partaideen prestakuntza eta informazioa ematea; informazio gizarte berri honek bultzatutako zerbitzu, abantaila eta aukera berrien sentsibilizazioa —komunikatzeko era berriak, teletrebakuntza...—; informazio eta komunikazio teknologiak landa lurraldeetan nola ezarri diren ikustea; eta arlo horretan aurrera eramandako esperientzien eta demostrazio praktiko bidez gizarte informazioa zabaltzea». Halaber, EAEn Leader+ delakoa Landa Garapenerako Programaren helburua, oinarria eta eremua ezagutzera ematea du xede.

Erakusketa berezi hau, «gazte asko hiriguneetako lan eta zerbitzu hobeen eskaintza zela eta, nekazal eremuetatik alde egin zuten herri horietan» batera eta bestera ibiliko da; horietako bat izango da Asteasu. Ia bi astez izango da proiektua herrian, hilaren 19ra arte, zehazki. Edozeinek har dezake parte, bai talde bezala bai bakarrik, eta adina ez da oztopo.

Sarekide lau ataletan banatua dago. Harrera-gunea da lehendabizikoa, non bideo infor-

Sarekide proiektua: teknologia berriak nekazal munduan

Atzo zabaldu zuten erakusketa ibiltaria; hilaren 19ra arte bisita daiteke, «gaurko erritmora erraz moldatzen ikasteko»



Sarekideko kide batzuk, erakusketan ikus daitekeenari buruzko informazioa praktikan jartzen. N. URBIZU

matibo bat dagoen, besteak beste. Bigarren atala formazio-gunea da: bertan, Internet, informatika eta beste hainbat arlo lantzen dira, bereziki nekazaritzarako interesgarriak diren gaiak jorratuz. Bestalde, erakusketa gunea dago: teknologia berriak ezarri izan diren proiektuetako batzuk erakutsiko dituen txokoa bezala ezagutzen da. Eta, azkenik, ziberludiko eta irakurketa gunea; hitzek beraiek dioten moduan, material ziberludikoa eta irakurtze-

ko txokoa daude bertan, beti ere nekazal arloa teknologia berriei loturikoa.

Era guztietako materiala du eskuragarri Sarekide erakusketa ibiltariak, funtzio bereziak dituzten ordenadoreak, esaterako. Baina, denetan garrantzitsuena, metereologiaren inguruko informazioa ematen duen tresna da: hau lortuz gero —diru laguntzak badaudela azaldu dute proiektuaren antolatzaileek—, hainbat nekazal lan errazten dira; adibidez, uztaren

kalitatearen informazio zehatza lortzen da, eta baita har ditzakeen gaisotasunei buruzko informazioa ere. Interesgarria da, era berean, formazio proiektuak eskaintzen duen hiru dimentsioetako baso simulatzailea: biltzeko makinaren eta autokargatzaileen langileak basogintza arloan formatzeko.

Baliagarria da, beraz, Sarekide erakusketa, eguneroko ekintzei erantzun egokia eman diezakiokena.

ALEGIA ▶

Ipuin kontalaria, gaur, udal liburutegian

Gaur arratsaldean, Alegiako udal liburutegian, ipuin kontaketa saioa izango da. Lamiak ipuin kontalari konpainiaren eskutik. Bost eta zortzi urte bitarteko haurrei zuzenduta dago emanaldia, eta 18:00etan hasiko da.

ALTZO ▶

Bi urteko kartzela zigorra zirriak egiteagatik

Gipuzkoako Fiskaltzak bi urteko kartzela zigorra eskatu berri du gizonezko batentzat, 2003. urteko urrian Altzon emakume bati zirri egin ziolakoan. Antza denez, emakumea bere autoan zegoen, eta gizonezkoa leihatilatik gorputza sartzen hasi eta zirri egin zion. Emakumezkoak autoa martxan jarri behar izan zuen gizonezkoa alden du zedin, eta lurrean botata geratu omen zen.

ANOETA ▶

Helduentzako eskulan ikastaroa

Hilaren 17tik ekainaren erdialdera arte, helduentzako eskulan ikastaroa antolatuta dute Anoetan. Asteartean eskainiko dituzte eskolak, 15:30etik 17:30era bitartean. Hozpel kaleko udal lokalean elkartuko dira ikasleak. Izena ematen dutenek erabiltzen den materiala ordaindu beharko dute soilik. Dagoeneko zabaldu dute epea horretarako; hain zuzen ere, hilaren 16a, astelehena, izango da azken eguna. Parte-hartzaileek konpromisoa hartuko dute beren eskulanak aurkezteko Udalak antolatuko dituen erakusketetan.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Arratzainerako espaloiarene obrak direla-eta autobus zerbitzua dute ikasle guztiek

Lanek errepidea estutu dute eta, Hezkuntza Delegaritzaren diru laguntza tarteko, autobusez igotzeko aukera dute Flemingeko eta Ernioeako ikasleek



Espaloi berriaren obrek —argazkiaren eskuinean— errepidea estutu dute, eta trafikoa bideratzeko neurriak hartu behar izan dituzte. I. GARCIA



Ikasle batzuk, atzo arratsaldean, autobusa hartzen Arratzainen herrigunera jaisteko. I. GARCIA

Aurrekontuaren zati handiena Hezkuntzako Delegaritzak jarri du. Beste zatiaren erdia Udalak ipini du eta eskola komunitatearen artean bilatu behar dute beste erdia nola jarri. Delegaritzaren diru laguntza martxoaren 31 arte izango da eta eskola komunitatean arduratuta daude ordurako lanak amaitu dituzten, data horretatik aurrera ezingo baitute autobus zerbitzua mantendu.

Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak azaldu dutenez, otsailen eskualdeko beste herri batean ekingo diote proiektu berri bati eta, beraz, Arratzainen egiten ari diren lanak ordurako amaitu dituztela esan dute. Bere aldetik, Udalari dagozkion lanak «ahalik eta azkarren» amaitzeko asmoa azaldu du Bakartxo Tejeria alkateak.

Trafikoa bideratzeko neurriak

Esan bezala, espaloia egitea ekarriko du segurtasuna eskolarako bidean, baina obrak iraun bitartean zenbait neurri hartu dituzte trafikoa bideratzeko. Lanengatik errepidea estutu denez, orain auto bat eta autobus bat ez dira sartzen Otsabitik Arratzainerako igorran. Horrela, Arratzainera igotzeko autoek Txerminetik joan behar dute eta jaisteko Otsabitik joan behar dute. Autobusek ezin dute Txerminetik joan, autobidearen azpiko tunelak ez duelako hauek behar duten altuerarik. Horregatik autobusak igo eta jaitsi Otsabitik egin behar dute. Beste salbuespenik ere badago, Otelarre auzoan bizi direnak aukera baitute Otsabitik igotzeko. Hauxe gain, Arratzainen egiten ari diren deposituaren obretara doazen furgonetek ere baimena dute Otsabitik joateko.

Obrak hasi baino lehen Villabonako herriguneari bizi diren Lehen Hezkuntzako 3. maila arteko ikasleek zuten aukera autobusez igotzeko. Orain DBHkoekin batera hartzen dute autobusa 6. mailakoek, 08:20ean, baina 09:00ak arte klaseak ez dituzte hasten. Horregatik, gutzientzat autobus zerbitzua izan arren, zenbait gurasok haurrak autoz eramaten dituzte. Fleming eskolatik adierazi dutenez, 08:30ean liburutegia irekitzen dute, bertan zaintzaile bat dagoela, klaseak hasi arte bertan egoteko.

Espaloi berriaren lanak noiz amaituko dituzten argi ez badago ere, gurasoek, eskolak eta Udalak bat egiten dute Arratzainera oinez igotzeko duen arriskua ekidingo duen obra hasi dela adierazterakoan eta hori dela lehenengo pausoa arazoarekin amaitzeko.

IMANOL GARCIA

Villabonako Arratzain auzoan dauden Fleming eskolara eta Ernioeaa instituturara oinez igotzeko espaloia egiten ari dira. Gurasoen aspaldiko eskaera da oinez joan behar duten haurrek segurtasunez egin ahal izatea eskolarako bidea. Tolosaldean Garatzen agentziak antolatutako *Tolosaldeko Zerbitzuak 2* proiektuan parte hartzen ari direnak egiten ari dira igeltsertizako lanak. Villabonako Udalak du, bere aldetik, obra amaitzeko behar den gutzia egiteko ardura.

Obrak «motel» doazela esan dute bai eskolakoek bai gurasoek ere. Izan ere, obrak bukatu arte segurtasunaren arazoa aregotu egin da, orain leku gutxiago baitago errepidean. Horren aurrean, eta Hezkuntzako Delegaritzarekin hitz egin ondoren, autobusak jarri dituzte Arratzainera igo behar duten ikasle guztiek garraioa izateko.

LEITZA ▶ PILOTA

Binakako Txapelketan Titini eta Pascuali irabaziz hasi dute ligaxka Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek

22 eta 16 irabazi dute Adarragan, aurrenekoa; hurrengoa larunbat arratsaldean dute, Labriten

J. ASTIBIA

Tolosan ekin zioten, hilaren 5ean, IV. Binakako Pilota Txapelketari, eta asteburu honetan ere Aspeko eta Asegarceko launa bikotek jokatu dituzte partidak. Tartean da Oinatz Bengoetxea, Bengoetxea VI.a, leitzarra bera, bikote modura Patxi Ruiz lagun duela.

Eta ekin ere, kementsu eta indartsu ekin diote lehiari Bengoetxeak eta bere lagunak; izan ere, larunbatean Adarragan jokatu zuten txapelketa honetako aurreneko partidua, bi enpresetako bikoteek elkarren aurka jokatuko duten ligaxkakoa, Titin III.a eta Pascualen aurka, eta 22 eta 16 irabazi zuten, sailkapenerako puntu bat eskuratuz horrela.

Partidu oso zaila zuten aurrez aurre leitzarrak eta bere lagunak, Titini aurre egitea ez baita lan makala izaten gehienean. Partidua hasi, iragarpe-nei jarraituz hasi zen, zailtasunekin: 0-3raino joan ziren



Oinatz Bengoetxea. J. SAIZAR

hauek, baina berdintzea eta 6raino aurreratzea ere lortu zuten gorriek, batez ere Pascualen ahaleginari esker. Baina, bere huts bat zela medio, ordea, urdinek sakea berreskuratu, pilota aldatu eta handik aurrera berdindu ez ezik aurrea hartu ere egin zuten, partidua osorako gainera, eta gehiago izan ziren, kantxan beren ja-

betza erakutsiz: Ruiz defentsan oso ongi aritu zen eta Oinatz Bengoetxea, berriz, defentsan ez baino erasoan aritu zen erabat, tantoak ongi errematatuz, txokoa utzitako pilotak, nahiz zabalera botatako boleak...

Tantoak egiteko, eskura etorriten zitzaion aukera guztiez baliatu zen leitzarra; 11 egin zituen berak. Bitartean, Pascual ongi aritu bazen ere, beraren eta Titinen artean gaizki ulertu batzuk izan zituzten, horrela zenbait tanto galduz. Aitatzekoa da, bestalde, Titinek partidua hasiera samarrean belauanean min hartu zuela, erantzutera zihoala ezker paretaren kontra belauna kolpatu eta behartu baitzuen. Partiduan sartzea gehitxo kosta zitzaion.

Kontuak kontu, urdinak izan ziren nagusi kantxan eta 22koa beraiek eskuratu zuten. Txapelketako kanporaketak hasi baino lehenagoko ligaxka honetan, aurreneko partiduan lanak emanen dituen bikoa dela erakutsi zuten eta aurreneko

puntua ere eskuratu zuten. Ligaxkan nahiz eta deus ere ez den jokatzeko, otsailean jokatuko dituzten final-laurdenetan denek denen aurka jokatu beharko dituzten partiduetako aurkariaren ordena besterik, Oinatz Bengoetxeak berak adierazi zuenez, «animoa hartzeko oso garrantzitsua da orain ongi aritzea».

Hurrengoa, Labriten

Hurrengo saioa datorren larunbatean berean dute Bengoetxea VI.ak eta Ruizek: Martinez de Irujoren eta Eulateren aurka, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Hau ere partidu gogorra izatea espero liteke, «zezen bat bezalakoa da, bizkorra», zioen Iberoko Martinez de Irujo leitzarrak. Atzeko koadroetan Patxi Ruizek egiten duen lanak, Eulateri gailenduko balitz, aurrekoetan Bengoetxeak egin dezakeena lagun dezake, bi arrerlariak ere, gazteak ez ezik, ausartak ere badira eta.

LEITZA ▶

Txoko tabernako III. Txintxon Txapelketa abian

Behin izen-ematea eginda —hilaren 5ean bukatu zen horretarako epea—, hurrengo astean hasiko dira Txoko tabernan aurtengoarekin hirugarren edizioa izan den Txintxon Txapelketa jokatzeko. HITZAK jakin ahal izan duenez, 16-18 lagunek hartuko dute parte lehiara, eta launaka jokatu dute, «eurek adostutako egun eta orduan».

TOLOSA ▶

Gure Txokoa elkartearen ohiko batzarra, 15ean

Gure Txokoa elkarteak, ohar baten bidez jakinarazi duenez, hilaren 15ean, igandean, ohiko batzarra egingo du. Lehenengo deialdia 10:30ean izango da eta bigarrena, berriro, 11:00etarako egin dute. Batzarra elkartearen egoitzan bertan egingen dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

- Osasuna.**
- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Oresa. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Eirtaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZALDEA ▶ PILOTA

Hiru finaletan, hiru txapelak irabazi dituzte

Jaunarenak, Olanok eta Sagastibeltzak Arronizko Txapelketa irabazi dute

JAIONE ASTIBIA

Aurrera pilota eskolako jokalaririk hiru mailatan iritsi ziren Arronizko lau t'erdiko Pilota Txapelketako finaletara, eta hirurak irabazita, txapela buruan dutela etxeratu dira: Jon Jaunarena, Anartz Olanok eta Mikel Sagastibeltza dira txapeldunak.

Leitzako pilota eskolako ordezkariak benjaminetan eta infantiletan jokatu zituzten finalak. Benjaminetan aritu ziren Mikel Sagastibeltza leitzarra eta Anartz Olanok aresoarra: Sagastibeltzak 18 eta 14 irabazi zion Oberena taldeko Ma-

riezkurrenari, eta Olanok, berriz, 18 eta 17, Lizarrako eskolako Garaiori; biak hala biak oso partidu interesgarri bezain lehiatuak suertatu ziren.

Infantiletan aritu zen, berriz, Jon Jaunarena leitzarra, eta honek sekulako alde atera zion arerioari, Barañaingo Taintari, 18 eta 4 irabaziz. Aise irabazi zuen leitzar gazteak. 13 urte ditu, martxoan egingen omen ditu 14, eta eskolako ordezkariak adierazi dutenez, «bere adinekoetan ez du areririk, 14 urtekoen artean nabarmendu egiten da, altua eta mutil kozkorra baita, eta pilotan ongi aritzen dena da».



Ezker-eskuin: Jon Jaunarena infantiletako txapelduna eta Mikel Sagastibeltza eta Anartz Olanok benjaminetako txapeldunak. S. LASARTE

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Ipuin kontalaria. 18:00etan, udal liburutegian.

Anoeta. Dantza-soka entsegua. 19:00etan, Edurkan.

Ibarra. Saharako herriarentzat elikagaiak biltzeko kanpaina. Hilaren 20ra arte, udaletxean eta Kultur Etxean.

Tolosa. Zine-klub taldeak deitutako bilera. 20:15ean, Kultur Etxean.

Tolosa. Batasunaren batzarra, Bide Eginez prozesuaz (ekarpenen aurkezpena eta txostenaren onarpena) eta mahai nazionalaren aukeraketaz aritzeko. Bihar, 20:00etan, udalbatzar aretoan.

Tolosa. Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

Tolosa. Bizkaian zehar antolatutako mendirteera Alpino Uzturre elkarteak datorren iganderako, hilaren 15a: Alonsotegin hasi eta amaituko dute ibilaldia. Izen-ematea elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).

ERAKUSKETAK

Tolosa. Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa. Hilaren 14a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. Irauli uhinak, Gaztesarek prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Zentroaren eskutik.

19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).

21:00-22:30. Bide okerretik, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Koloretsu-koloretsu

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Mainerrek, Asierrek, Jorgek eta Alaitzek Anoetari eta Tolosari buruz egindako marrazkiak jaso ditugu txoko honetan



TOLOSA ▶

Mainer Aldazabal Mateo (7 urte, Tolosa).

«Gustatzen zait Olentzero Tolosara etortzea. Marrazki honetan Haur Liburutegia ikusten da», dio gure lagun Mainerrek.



TOLOSA ▶

Jorge Gomez (9 urte, Tolosa).

«Zubi Berritik nahi dut Erregeak etortzea», esan digu gure lagun Jorgek bere marrazkiarekin batera.



ANOETA ▶

Asier Arozena Olarra (8 urte, Anoeta).

«Anoetako parkea da hauxe, bere kolore guztiarekin», azaldu digu Asierrek HITZARA ekarritako marrazkiaren atzealdean.



ANOETA ▶

Alaitz Arozena Olarra (3 urte, Anoeta).

Egindako marrazki koloretsuan jasotakoa azaldu digu halaxe Alaitzek: «Anoetako lore bat da hauxe, nire baratzean».

AGURRAK ▶



Je-jei wapisisimo! Tioo bueno! Guk esandakoa bete dezu. Juergak utzi ta hasi lanen! Moxola eta moxolita. Muxuk.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tarteak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!